

AULESTIKO JIGANTEA

Erri polit bat badau Bizkaiak, Aulesti deritxona. Zenbat gizon sendo eta jator bere magalpean sortuak. Bere zeru urdinean beste izar indartsu batek dizdiz diardu. Bere izena Jon Olea Unamuno «Sakoneta», «Aulestiko jigantea». Mutil galanta, ederra ederrik bada. Gure basoetako tantai mardul eta jaso dirudi. 22 urte besterik ez ditu. 1,98 altura eta 120 bat kilo soinean. Jaungoikuak apropos egindako gizon-pieza emoten dau.

Gizon probetan agertu diran guztiak, sailcan menperatu ditu. Orain arteko markak austu eta birrindu. Berau dogu txapeldunen txapeldun eta errege. Euskal arraza ez dago agortuta. Ezta onenak emonda be.

Beragaz alkarizketa bat izateko asmotan urreratu naz Aulestirantz Zubero auzune garbi eta txukunean bizi da bere guraso eta nebarrebakin. Txeratsu eta ondo artu nabe Sakonetarrak. Eta Jonek ez daust ezetariko trabarik ipini alkarizketa au egiteko, aldebres oso prest edozeri erantzuteko.

ANITUA.- *Nondik datotzu erri-kiroletarako zaletasuna?*

SAKONETA.- Mutikotan, nire aitaren gizon proba baten, Kobaren aurka ain zuzen, plazan ikusitako zuzengabekeriak ikusita, alako «errebantxa» oiartzuna entzun izan neban nere barruan. Axe izan zan leen txinparta. Beste alde batetik, gure etxean errikirolugarra aspaldian dirau bizirik. Aitita be arrijasotzaila aun-

dia izan zan, amalau arruako arria esku bategaz, orduko denpo-
retan, golpean leporatzen eban indartsua. Nire aitari eta osabei
be atsegin jakez erri-kirolak. Baten baino geiagotan plazan ari-
tuak dira eurok be.

A.- Noiz asi zinan gizon probetan?

S.- Iazko urtean, Nabarnizen.

A.- Zein izan da egin dozun probarik gustokoena?

S.- Gasteizen, Euskadiko txapelketan. Oso gustora geratu nin-
tzan an egindako lanaz.



A.- Ta eskazena?

S.- Oraintsu, Abadinon, Agustinen aurkako desafioan. Sekulako
eskasena. Makal eta jota, zer egiten ez nekiela ibili nintzan pro-
ban. Ez dakit ziur baina pratikanteak ondo bearrez, gorputza
igurtzeko emondako linimentoak itzelezko kaltea egin eustala ta

nago. Begitu, gorputz dana sutan sentitzen neban eta ekinaldi guztian ez neban izerdi tanta bet bera be bota.

A.- *Zelako prestakuntza?*

S.- Astean bein Etxebarriko probalekuan, 800 kiloko arriaz entrenatzen naz. Mendian ibili, pasu luzeak emonaz. Noizeanbein, Durangoko jinasioan «estiramiento» ta antzeko probak. Baita piszinan igerian apur bat, denporea emoten.

A.- *Janari apartekorik?*

S.- Ez, edozer jaten dot, aurrean ipinten daustena. Nire «gaixoa» gozokiak.



Sakoneta Abadiñon (1989-IV-29an)

A.- *Proba dozun egun bateko janaria?*

S.- Esaterako, azkenengo proban, fideo sopea, txuleta bat eta ori bai, plater eder bat «flana». Edateko Santa Eufemiko ur garbia. Ardorik eta paitxarrrik usainik bere ez.

A.- *Badago dopinik erri-kiroletan?*

S.- Ez, nik dakidanez, ez beintzat.

A.- *Badago pikerik zuen artean?*

S.- Ezta! nik neuk ez daukat pikerik inogaz be!

A.- *Irabazten dozu dirurik?*

S.- Gauzak ondo urten daustanez, polito irabazi izan dot. Lenengo urtea izateko, ez naz ibiliko illetak joten!

A.- *Euskalerritik kanpora beste inon artu izan dozu parte?*

S.- Bai, Parisen. Erri-kirol «olinpiada» antzeko bat ospatu zan eta nik sokatiran artu izan neban parte. Berzi kiroldegia toperaino beteta egoan. Alako jendetzarik ez dor emen ikusi.

A.- *Txapelketak ala desafioak gurago?*

S.- Txapelketak!

A.- *Probaleku atseginena?*

S.- Abadiño. Guzurra dirudi baina probaleku bakotxak bere apartekotasuna dauko. Baita arriak curak be!

A.- *Gizon probarako edaderik onena?*

S.- 35-40 bitarteko urteak ei dira onenak.

A.- *Erri-kirolaren egoera zelan ikusten dozu?*

S.- Gorantz! Komunikabideetan geroago eta indar geiago ar-tzen doa. Idi probak, esaterako, inoiz baino geiago egiten dira.




A.- Txapeldun zara ta orain zet?

S.- Nire ametsa, bete al balitz, Barzelonako Olinpiadan, 92an, mila kiloko arriaz «exibizio» proba eder bat egitea. Gizon probetan ez daukat beste ilusiorik!

A.- Daukazu sasoiak eta oraindino indarra etortzen, ez dozu pentsa beste kirol mota baten parte artzerik?

S.- Bai, saski-baloian edo jabalina edo pisu jaurtiteko ametsak be izan ditut baina orretarako lar berandu da. Amabi-amalau urtekin asi banintz...



Gasteizen (1988-XI-27an) Euskadiko Txapeldun

A.- Izan dozu olako pasadizu xelebrenik?

S.- Bai, mordo bat! Bat aipatzekotan, Parisen gertatutakoa. Iñaki Perurenak 300 kiloko arria leporatu ebanean, jendea txistuka asi zan! Ezeben sinistuten orrenbeste kiloko arria zanik! Ta alako

«punky» antzeko gazte batek jesarlekuetatik salto egin eta non arriari oratzen dautson, baina arria geldu. An ezegoan tranparik!

A.- Txirindularitzan be apustuak irabazi ei dozuz?

S.- Bat baino geiago! Inportantea Ismael Lejarretari profesional izan zan bere azken urtean, Lekoiztik Aulestiara erraz irabazi neuntson.

A.- Zure ogibidea?

S.- Arakintza, Durangon.

A.- Baserria ala kalea bizitzeko?

S.- Baserria! Bista ederrak daukazan baserri baten nai neuke bizi.

A.- Zelan ikusten dozu baserri giroa?


S.- Oso baltz! Goitik beera «mekanizatzen» ez bada, ez dago urtenbiderik. Orretarako «inbertsio» aundiak egin bear dira ta laguntasunaren premia gorrian dagoz baserriarrak. Beste gauza bat da, kanpoan lana egin eta baserrian ganadu batzuk eta abar cukitea. Ori beste musika bat da!

A.- Gaurko gaztediaren arazo larriena?

S.- Ez da, nire ustez, langabezia. Ori be bai, baina ez da larriena. Kontsumoaren eta propagandaren katepean or dabil gaztedia nora-ezean batetik bestera, erre kara botatako egur zatia urak daroan bezela. Ez dau inon gozamenik aurkitzen eta naskauta triste bizi da. Nortasunik eza, barruko gozamen egarri ori zelan asetu ezina, orixe da niretzat gaurko gaztediaren arazo larriena.



Sakoneta bere lengusiñagaz



Sakoneta bere lanpostuan

A.- *Munduko aurrerapen aundiena?*

S.- Gizonak egan egitea, au da, egazkina.

A.- *Penagariena?*

S.- Kutsadura eta prisaka erdi zoraturata ara ta ona bizitzea.

A.- *Liburu bat?*

S.- «Energia eólica»

A.- *Pelikula bat?*

S.- «Qué bofetadas».

A.- *Ze kolore?*

S.- Berde klarua.

A.- *Ze politika?*

S.- Abertzale normala, itsutu barik.

A.- *Ze «hobby»?*

S.- Kotxe eta motor karrerak! Abiadura!

A.- *Badaukazu andragairik?*

S.- Ez, lagunak bakarrik!

A.- *Ze kalitate estimatzen dozu geien pertsonengan?*

S.- Normaltasuna, natural-natural izatea. Ez jat bat ere atsegin pertsona biurriak eta erreak.

A.- *Artu dozun famea eta entzutzeak, ezer aldatu zaitu?*

S.- Ezebe! Beno, ezagun geiago ditudala orain.

A.- *Jaungoikua goian eta «Sakoneta» bean esaten ei da!*

S.- Nik neuk ez dakit ser esaten dan or zear, baina gure etxean ez da olako astakeririk entzun oraindino!

A.- *Zer da zure bizitzan geian gustauko litzakizuna lortzea?*

S.- Askatasuna, au da, baserri giroan, inoren menpean bizi barik neure gustoko lanak egin, basoak zaindu, soloak landu, arbolak eztiu eta abar. Pertsona lotu egiten dabenez, ez neuke ganadurik ipiniko, ezta negoziarik ez beste ezelako buruausterik be! Neure martxan tenplau gustora bizi!

Mila esker, Jon, eta segi, erri-kirol munduak, gazte egarriz bizi danez, asko eskertuko dautsu ta.

Anitua